**Gipuzkoako Mendizale Federazioa**
**Federación Guipuzcoana de Montaña**

Anoeta Pasealekua, 5, 20014 -Donostia
Telf.: 943.46.14.40 - e-posta: gmf-federatuak@kirolak.net

gipuzkoako kirol egokituen federazioa
federación guipuzcoana de deporte adaptado

Anoeta Pasealekua, 5, 20014 -Donostia
Telf. / Faxa: 943.46.25.14 – e-posta: info@fgdpm.com

# GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOAREN ETA GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUKO FEDERAZIOAREN IRIZPIDEAK BIDEZIDORREN *IRISGARRITASUN UNIBERTSALA* HOBETZEKO

## SARRERA

Diseinaturiko ibilbide bat da bidezidor bat, bertatik pasatu ahal izateko.
Senderismoa aisialdiko kirol jarduera bat da, guztien eskura dagoena, Espainiako Mendizale Federazioaren eskuliburuan jasota dagoen bezala. Hau da, jarduera honek izaera integratzailea du; beraz, kirol hau egiteko erraztasunak eman behar zaizkie urritasunen bat duten pertsonei ere.

Federazioak ezarritako baldintzak betetzen dituen bidezidorra da bidezidor homologatua.

Dena antolatuta izateko, erregistro on bat edukitzeko eta bidezidorrek segurtasun baldintza egokiak izan ditzaten, bidezidor denak irizpide berberak erabiliz homologatzea komeni da. Homologaturiko bideetan mantentze-lana egin beharra dagoela dioen ideia sendotu egin behar da, eta deskatalogatu egin behar dira homologazio kontratuan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten bideak.

Gutxietsi behar ez dugun altxorra da ingurumena. Naturan, eta batez ere mendi inguruetan, gauzatzen den edozein jardueratan ingurumena zaintzea ezinbestekoa da. ***irisgarritasun unibertsala*** ziurtatzeko, bidezidorretan egiten diren esku-hartze guztiek bateragarriak izan behar dute ingurumena zaintzearekin.

## *IRISGARRITASUN UNIBERTSALA*RI BURUZKO IRIZPIDEAK

1.- Homologaturiko bideetara iristeko azpiegiturak hobetu beharra behin eta berriro azpimarratu behar da (ostatua, garraioak, aparkalekua, aisialdirako eta atsedenerako guneak eta informazio guneak), informazioa areagotuz eta ***irisgarritasun unibertsaleko*** gaietan lan egiten duten erakunde autonomikoekin lankidetzan arituz, betiere azpiegitura horien hobekuntza eta egokitzea bultzatze aldera.

2.- Bidezidorretara ***irisgarritasun unibertsala*** hobetzeko, ondoko kontsiderazioak edukiko dira kontuan:

# CRITERIOS DE LAS FEDERACIONES GUIPUZCOANAS DE MONTAÑA Y DE DEPORTE ADAPTADO PARA MEJORAR LA *ACCESIBILIDAD UNIVERSAL* DE LOS SENDEROS

## INTRODUCCION

Un sendero es un itinerario diseñado para que se pueda discurrir por él.
El senderismo es una actividad ocio deportiva al alcance de todos, tal y como se describe actualmente en el manual de senderos escrito por FEDME. Es decir, esta actividad tiene carácter integrador, por lo tanto, debe facilitarse su práctica también a personas con discapacidad.

Un sendero homologado es aquel que cumple los criterios establecidos por la federación.

Para establecer un orden, tener un buen registro y que se cumplan unas buenas condiciones de seguridad en los senderos, es aconsejable que todos los senderos se homologuen bajo los mismos criterios. Se debe reforzar la idea de que los senderos homologados requieren mantenimiento, descatalogando aquellos que incumplan las condiciones del contrato de homologación.

El medio ambiente es un tesoro que no debemos menospreciar. Su cuidado es un pilar básico en el desarrollo de cualquier tipo de actividad en el medio natural, y en especial en las zonas de montaña. Las intervenciones que se realicen en los senderos para mejorar su ***accesibilidad universal*** deberán ser compatibles con el cuidado del medio ambiente.

## CRITERIOS SOBRE LA *ACCESIBILIDAD UNIVERSAL*

1.- Se debe hacer hincapié en la necesidad de mejora de las infraestructuras de acceso a los senderos homologados (alojamiento, transportes, aparcamiento, centros de ocio y recreación así como los puntos de información) por medio de un aumento de la información y colaborando con aquellos organismos autonómicos que trabajan en materia de ***accesibilidad universal***, para promover la mejora y potenciar la adaptación de dichas infraestructuras.

2.- Para mejorar la ***accesibilidad universal*** a los senderos se tendrán en cuenta las siguientes consideraciones:

a) Homologatu nahi den bidea sustatzen duen erakundeari aholkatu behar zaio hasierako panelak egokitzea, eta ibilbidean zehar panelak, zutabetxoak, geziak eta atsedenlekuak jartzea. Era berean, gomendatu behar zaio ibilbideari buruzko informazioa zehaztea: kokapen geografikoa, kilometroak, denbora, gehieneko eta gutxieneko altuera, metaturiko desnibelak, desnibelak guneka, zabalera, ur pilaketak, errekak, lurzoru mota, bidegurutzeak, atsedenlekuak, eta hasiera ez izan arren sarbide izan daitezkeen guneak. Informazio hori guztia izanez gero, hobeto baloratu ahal izango du edozein pertsonak bide horretan ibiltzeko gai ote den.
b) Bidezidorraren dokumentazio gehigarria, historia, fauna eta flora, gehienetan webgunearen eta informazio liburuxken bidez ematen da. Erabilgarri dagoen informazioak nahi duenaren eskura egon behar du.
c) Informazio hori guztia Gipuzkoako Mendizale Federazioaren artxiboetan gordeko da.
d) Egun, senderistari ematen zaizkion aholkuak gehitu egingo dira.
e) Aurreko ekimen horiek guztiek bidezidorretako segurtasuna areagotzea ekarriko dute.

3.- Laguntza teknikoa (lekualdatzeetan laguntzen duten ibilgailu mekanikoak, hand-bike, trizikloak eta abar) ematen duten enpresak eta erakundeak ezagutarazi behar dira, segurtasuna handitzeko eta naturan barrena errazago mugitzeko.

4.- Zaharberritze lanak egitea gomendagarri denean, irizpide batzuk ezarri behar dira ingurumen inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin. Honako hauek sar daitezke irizpide horien artean:

a) Lurzorua: ahalik eta ingurumen inpakturik txikiena eragiten duen lurzoru mota jarriko da, eta ahal dela itzulgarria izango da, hau da, egoera naturalera itzultzeko aukera zaindu behar da.
b) Argiztapena: bidezidorrak ez dira argiztatu behar, argi inpaktua saiheste aldera.
c) Zaborrontziak: mendian zaborrik ez uzteko ohitura bultzatu behar da. Erabiltzaile bakoitzak eraman behar ditu bere hondakinak, eta ahalik eta aztarnarik txikiena utzi behar dugu.

5.- Etorkizunera begira, bidezidor hauek aurrez aipaturiko irizpideak erabiliz homologatuak izan daitezen bide eman behar da.

6.-Gipuzkoako bidezidor guztien ***irisgarritasun unibertsala*** bultzatzeko, datu base bat egin beharko litzateke, aipaturiko irizpideei buruzko informazio guztia jasoko lukeena (sarbideak, lurzoru mota, malden % eta abar), eta etorkizunean datu horiek argitaratzeko aukera egongo litzateke.

**KONKLUSIOA**

*"BIDEZIDOR BATI BURUZKO INFORMAZIOAK IRISGARRIAGO EGITEN DU BIDE HORI"*

a) Se debe aconsejar, al órgano promotor del sendero que se quiere homologar, que adapte los paneles de inicio, paneles a lo largo del recorrido, así como los rondinos, flechas y áreas recreativas. También se le aconsejará que aumente el detalle de la información concerniente al sendero en cuanto a la situación geográfica, kilómetros, tiempo, altura máxima y mínima, desniveles acumulados, desniveles por zonas, ancho, acumulaciones de agua, regatas, ríos, tipo de suelo, cruces, zonas de descanso así como aquellas zonas que pueden servir de acceso y no son el punto de inicio. Con toda esta información cualquier persona podrá valorar mejor su capacidad para ir al sendero.
b) La documentación adicional del sendero tal como su historia, la fauna y la flora generalmente se ofrece a través de la página web y de folletos informativos. La información disponible deberá estar al alcance de quien lo desee.
c) Toda esta información pasará a los archivos de la Federación Guipuzcoana de Montaña.
d) Así mismo, se ampliarán los consejos actuales del senderista.
e) Todas las iniciativas anteriores repercutirán en el aumento de la seguridad de los senderos.

3.- Se debe facilitar el conocimiento de empresas u organismos existentes que trabajen con ayudas técnicas, tales como vehículos mecánicos, que faciliten el desplazamiento (hand-bike, triciclos etc), para aumentar la seguridad y facilitar la movilidad por el medio natural.

4.- Cuando resulte aconsejable realizar obras de acondicionamiento, se deben establecer unos criterios, para minimizar el impacto ambiental, que pueden incluir entre otros:

a) Suelo: el tipo de suelo será el de menor impacto ambiental posible y procurando que sea reversible, es decir, con la posibilidad de volver el mismo a su estado natural
b) Iluminación: no se deben iluminar los senderos, debido a su impacto lumínico.
c) Basureras: se debe fomentar el hábito de no dejar basura en las montañas. Cada usuario debe llevar consigo los residuos generados, dejando la menor huella posible a nuestro paso.

5.- De cara al futuro, se debe propiciar que estos senderos sean homologados con los criterios antes mencionados.

6.- Para potenciar la ***accesibilidad universal*** de todos los senderos de Gipuzkoa se debería realizar una base de datos con toda la información relativa a los criterios antes expuestos (accesos, tipo de suelo, % de pendientes etc.) con la posibilidad de publicar estos datos en el futuro.

**CONCLUSION**

*"LA INFORMACION SOBRE UN SENDERO AUMENTA SU ACCESIBILIDAD"*

**Gipuzkoako Mendizale Federazioa**

**Juan Pedro Iturbe Bengoa**
**Lehendakaria**

**Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioa**

**Mikel Izaguirre Anabitarte**
**Lehendakaria**

**Donostia, 2008ko ekainaren 18a**